



# Laudio, guztiona

*Parte-hartze bidezko aurrekontuak 2022*



**LAUDIO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

## Zer dira parte-hartze bidezko aurrekontuak?

Udalak abian jartzen dituen aurrekontu parte-hartzaileak prozesu ireki bat dira, eta honen bidez laudioarrek etorkizuneko Laudioaren eraikuntzari buruzko ideiak eman ditzakete.

Tresna honi esker, Laudioko herritarrek beren proposamenak egin ditzakete udal-aurrekontuaren zati bat jarduera eta ekimen berriak garatzeko erabiltzeko moduari buruz.

Horrela, Laudioko Udalak 200.000 euro gordeko ditu 2022erako aurrekontutik, eta herritarrengandik zuzenean datozen proiektuak gauzatzeko erabiliko dena.

## ¿Qué proyectos de presupuestos participativos se han ejecutado?

2020. eta 2021. urteen artean, aurrekontu parte-hartzaileak martxan egon diren urteetan, Udalak hainbat jarduera jarri ditu abian auzotarren proposamenen ondorioz; adibidez:

- Zuberua kaleko eta inguruko aparkalekuak berrantolatzea
- Bizikletak garbitzeko gune bat jartzea
- Laudioko Kulturaren Plan Estrategikoa idaztea
- Nerbioi ibaia garbitzea (*Enplegu Planaren esparruan landutako proiektua*)
- Arrañon askaldegiko espazio bat egokitzea.
- Bidegorria asfaltatzea (*lehen fasea garatu da*).
- Kiroldegiko kantxa berritzea, kirol diziplina gehiago egin ahal izateko tarima berri bat jarritz.
- Lamuzako parkerako irisgarritasuna hobetzea (*esku-hartzea 2021eko bigarren seihilekoan egingo da*)
- Laudioko haur-parkearen estalkia (*esku-hartzea 2021eko bigarren seihilekoan egingo da*).
- Skateparka berritzea (*esku-hartzea 2021eko bigarren seihilekoan egingo da*).
- Pumptrack bat eraikitzea (*esku-hartzea 2021eko bigarren seihilekoan egingo da*).

## Nork har dezake parte bere ideiak aurkezteko?

- ✓ Laudion erroldatuta dagoen edonork, 16 urtetik gorakoa bada.
- ✓ Ordenamendu juridikoaren arabera, nortasun juridikoa duen edozein elkarte, fundazio, sindikatu, enpresa-elkarte, elkargo profesional, zuzenbide publikoko korporazio edo bestelako erakunde. Eskatzaileak Laudion erroldatuta egon beharko du eta 16 urtetik gorakoa izan.

## Zein da jarraituko den prozesua?

Aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzeko prozesua uztailan hasiko da, proposamenak aurkezteko prozesua hasten denean, eta fase hauek jarraituko ditu:



### 1. Fasea: proposamenen aurkezpena

**Uztaila**

Lehen fase honetan, audioarrek beren ideiak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horiek oinarri hauetan jasotzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Proposamenak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan), edo udalaren webgunean ([www.audio.eus](http://www.audio.eus)).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da::

- ✓ Ideiak proposatzeko eredia (Hazen eta webgunean eskuragarri).
- ✓ Erantsitako dokumentazioa, beharrezkoa bada.



### 2. Fasea: proposamenak aztertzea

**Abuztua**

Eduki difamatzaila edo diskriminatzailea duten proposamenak ezabatu ondoren, arlo ezberdinek jasotako proposamenen edukia aztertuko dute ikuspuntu juridiko, tekniko eta ekonomikotik.

Legezkoak eta bideragarriak diren proposamenak, eta udalerrriaren garapenerako positibotzat jotzen direnak, hurrengo faserako hautatuko dira.



### 3. Fasea: proposamenen bozkaketa

**Iraila (1. hamabostaldia)**

Hautatutako proposamenak herritarrek bozkatuko dituzte. Bozketa honela egin ahal izango da:

- Aurrez aurre, Laudioko Udalean.
- Udalaren webgunearen bidez ([www.audio.eus](http://www.audio.eus)).



### 4. Fasea: aurrekontuan sartzea

**Iraila (2. hamabostaldia)**

Herri-bozketaren emaitzak aztertuko dira, eta lehenetsitako proposamenak 2022rako udal-aurrekontuaren proiektuan sartuko dira, Udalbatzak onar ditzan.

Udalak proposamen guztien zerrenda argitaratuko du, analisi eta balorazio teknikoaren fasea zein izan den eta Aurrekontu Proiektuan zeintzuk sartu diren adieraziz.

## **Zein gaietara aurkez daitezke proposamenak?**

Aurkezten diren ideiek udal-eskumeneko jarduera-eremuekin lotuta egon behar dute nahitaez, eta ideia horiek ezin izango dituzte beste erakunde edo eragile pribatu batzuek baldintzatu.

- ✓ Obrak, Zerbitzuak eta Landa Garapena.
- ✓ Hirigintza eta lurraldearen garapena.
- ✓ Sustapen ekonomikoa (enpresak, merkataritza, turismoa, enplegua, etab.)
- ✓ Gizarte-garapeneko politikak (gizarte-ongizatea, berdintasuna, haurrak, adinekoak, gazteak, etab.).
- ✓ Kultura eta euskara garatzea.

Proposamenek ezin izango dute jaso pertsona, erakunde edo talde jakin batek egitea; izan ere, hautatu eta aurrekontuan sartzen badira, dagokion arloak kudeatu eta izapidetuko ditu, udalaren lan-bideei jarraituz.

Era berean, ezingo dira aurkeztu honako hauei lotutako proposamenak:

- Langileak kontratatzeako gastuak.
- Enpresa edo pertsona autonomoak kontratatzea lanak eta zerbitzuak egiteko.
- Familiei, irabazi-asmorik gabeko erakundeei, fundazioei eta enpresa pribatuei zuzendutako diru-laguntzak.
- Bekak, sariak, ongintzako laguntza edo asistentzia ematea.
- Diru-sarrera publikoei buruzko proiektuak.

## **Zein irizpide bete behar ditu proposamenak?**

Oro har, honako alderdi hauek aztertuko dira proposamen bat egokitzen jotzen den ala ez baloratzeko:

- ✓ Proposamenak Udalaren eskumena izan behar du; hau da, ez da beste administrazio batzuen mende egon behar.
- ✓ Proposamenak legezkoa izan behar du: ez egotea proposamena gauzatzearen aurkako araudirik, guztien ongiaren aurkako joera ez izatea eta difamazio- edo diskriminazio- edukirik ez izatea.
- ✓ Proposamenak udalerraren ondasun komuna bilatu behar du, interes partikularretatik ihesi.
- ✓ Proposamenak bideragarria izan behar du teknikoki eta ekonomikoki.
- ✓ Proposamen bakoitzari lotutako zenbatekoa ezingo da 60.000 euro baino gehiagokoa izan.

## **Zein informazioa eskaini behar dut?**

Ez da beharrezkoa proposamenaren deskribapen tekniko konplexuegia egitea, zure hitzekin deskriba dezakezu. Hala ere, zenbat eta hobeto azaldu, orduan eta errazagoa izango da Udalarentzat ebaluatzea.

Proposamena egitean, datu hauek eskatuko dira:

- ✓ Datu pertsonalak (edo, hala badagokio, ordezkutzen den erakundeari edo taldeari buruzkoak).
- ✓ Proposamenaren izena
- ✓ Proposamenaren deskribapena: zertan datzan, zer helburu lortu nahi duen, udalerraren zer premia bete nahi duen, zergatik aurkezten den, etab.
- ✓ Proposamenaren gutxi gorabeherako kostua: kostu ekonomikoaren hurbilketa aurkeztea derrigorrezkoa ez bada ere, proposamena dimentsionatzen eta ebaluatzen lagun dezake.
- ✓ Nahi izanez gero, dokumentuak ere erantsi ahal izango dituzu.

## **Gerta daiteke aukeratutako proposamen bat ez egitea?**

Bai. Proposamenak gauzatu aurretik, gainerako aurrekontu-sailekin gertatzen den bezala, beharrezko azterketak egingo dira.

Aurrekontu Proiektuan sartu aurretik azterlan bat egin bada ere, azken izapide horretan ager litezke aurretik detektatu gabeko oztopoak dituzten azterlan gehigarriak.

Hala bada, informazio hori webgunean argitaratuko da.

## **Eta nire proposamenak ez badatoz bat parte-hartze bidezko aurrekontuekin?**

Ez kezkatu, jarraitu dezakezu zure iradokizunak Udalari helarazten urte osoan zehar herria hobetzeko, gainerako bide eta tresnen bidez (auzo-batzarrak, udalaren webgunea, HAZ, etab.).

**Laudio, guztiona**